

ERABILERA ETA EROSKETA ZEHAZTAPENAK ETA BALDINTZAK

SARRERA

Agiri honek (eta bertan aipatzen diren agiri guztiek) webgune honen (www.oysho.com) eta bere aplikazioaren (aurreantzean, batera, "Plataformak") erabilerarako eta bertako produktuak erosteko baldintzak arautzen ditu (aurreantzean, "Baldintzak").

Plataformak erabili baino lehen, Baldintza hauek, gure Cookiei buruzko Politika eta gure Pribatutasun-politika ondo irakurtzea eskatzen dizugu (batera, "Datuak Babesteko Politikak"). Plataformen erabilera zuzentzen duten arau guztiak bete behar dituzu. Gainera, eskari bat egiteko, berariaz Baldintza hauek onartu beharko dituzu eta gure Pribatutasun-politikan adierazitako informazioa irakurri; era horretan, lotura ezarriko da. Baldintza guztiekin ados ez bazaude, ez zenituzke Plataformak erabili behar.

Baldintzekin edo Datuak Babesteko Politikei buruzko galderarik baduzu, harremanetan jartzeko fitxategiaren bidez jar zaitezke gurekin harremanetan. Plataformetako Baldintzak eskuragarri dauden edozein hizkuntzatan formalizatu daiteke kontratua, zuk zeuk erabaki dezakezu hizkuntza.

2. GURE DATUAK

Plataformen bitartez egiten den produktuen salmenta izen honen pean egiten da: OYSHO, OYSHO ESPAÑA, S.A.ren eskutik; Espainiako sozietatea, egoitza Diputación etorbideko Inditex Eraikina, 15143 Arteixo (A Coruña) helbidean duena; A Coruña-ko Merkataritza Erregistroan inskribatuta dagoena, 971. Liburukian, Atal orokorrean, 68. Folioan, C3.363 Orrian, A-15026347 IFZrekin; telefono-zenbakia 900 456 004 eta helbide elektronikoa contact_es@oysho.com duena.

3. ZURE DATUAK ETA PLATAFORMARA EGITEN DITUZUN BISITAK

Datuak Babesteko Politiketara xedatutakoaren arabera tratatuko dugu ematen diguzun informazioa eta zuri buruzko datuak. Emango dizkiguzun datu eta informazio guztiak egiazkoak dira eta errealitatearekin bat datozen.

4. GURE PLATAFORMEN ERABILERA

Gure Plataformak erabiltzerakoan eta honen bidez eskari bat egiterakoan, hau hitzematzen duzu:

- i. Plataformak legezkoak diren kontsultak eta eskariak egiteko baino ez dituzula erabiliko.
- ii. Iruzurezko eskaririk edo eskari faltsurik ez duzula egingo. Mota horretako eskaririk egin dela arrazoitu badaiteke, hori bertan behera uzteko eta dagokion agintaritzari horren berri emateko baimenduta gaude.
- iii. Zure helbide elektronikoaren, posta elektronikoaren eta harremanetarako beste datuen berri modu zehatzean eta egiatian emango diguzula. Halaber, zurekin harremanetan jartzea beharrezkoa balitz, informazio hori erabili dezakegula onartzen duzu (ikus gure Pribatutasun-

politika). Behar dugun informazio guztia ematen ez badiguzu, ezin izango dugu zure eskaria bideratu.

Plataformen bidez eskari bat egiterakoan, 18 urte baino gehiago eta kontratuak egiteko legezko gaitasuna duzula adierazten duzu.

5. ZERBITZUAREN ESKURAGARRITASUNA

Plataformen bitartez eskaintzen diren produktuak Espainiako lurraldera bidaltzeko baino ez daude eskuragarri.

Plataformen bitartez beste herrialde batetik eskaria egin nahi baduzu, egin dezakezu. Haatik, kontutan har ezazu entregak Espainiako OYSHO dendaren batean edo Espainiako lurraldeko helbideren batean baino ez ditugula egiten.

6. ESKARIA NOLA EGIN

Eskari bat egiteko, linean erosteko prozedura jarraitu eta "Ordainketa baimendu" botoia sakatu beharko duzu. Ondoren, eskaria jaso dela adierazteko posta elektronikoa jasoko duzu ("Eskariaren Baieztapena"). Zure eskaria bidaltzen ari garenean, posta elektronikoa bidez jakinaraziko dizugu ere bai ("Bidalketaren Baieztapena"). Zure eskariaren xehetasunak dituen tiket elektronikoa Bidalketaren Baieztapenarekin batera bidaliko dugu ("Tiket elektronikoa").

7. AKATSAK ZUZENTZEKO BALIABIDE TEKNIKOAK

Gure Plataformen erabiltzaile gisa izena emateko prozesuan zehar, zure datu pertsonalak sartzekoan akatsen bat gertatu dela hauteman baduzu, datu horiek "Nire Kontua" atalean aldatu ahalko dituzu.

Edonola ere, erosketa prozesuan zehar emandako datu pertsonalekin lotutako akatsak zuzendu ahalko dituzu. Horretarako, bezeroarentzako arreta zerbitzuarekin jar zaitezke harremanetan 900 456 004 telefono-zenbakian edo contact_es@oysho.com helbide elektronikoa. Gure Pribatutasun-politikan jasotako datuak zuzentzeko eskubideaz ere baliatu zaitezke.

Gure Plataformetan hainbat baieztapen leiho agertzen dira erosketa prozesuan zehar. Atal horietako datuak zuzen eman ezean, ezingo duzu eskariarekin jarraitu. Halaber, Plataformek erosketa prozesuan zehar saskian sartu dituzun produktu guztien xehetasunak eskaintzen ditu. Ondorioz, ordainketa egin aurretik, zure eskariaren datuak aldatzeko aukera izango duzu.

Ordainketa prozesua amaitu eta gero, zure eskarian akatsen bat dagoela ikusten baduzu, akatsa zuzendu ahal izateko, gure bezeroarentzako arreta zerbitzuarekin jarri behar zara harremanetan. Horretarako, lehenago aipatutako telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa erabili ditzakezu.

IKUS DENDAN ESKURAGARRI DAGOEN ETA ERRESERBA EGIN (www.oysho.com orriaren bitartez eta web mobileren bitartez bakarrik egin daiteke)

Dendan eskuragarri dagoen

Erabiltzaileak produktu bat dendan eskuragarri dagoen ikusi ahal izango. Jarraian, leiho bat edo pop-up mezu bat irekiko da. Erabiltzaileak hor sartu behar du bere posta kodea edo hiria tolesgarrian agertuko zaizkion denden artean bat aukeratzeko eta hartan produktu hori dagoen ala ez jakiteko.

Kontsulta egiteko unean bakarrik izango da baliagarria informazio hori. Kontsulta hori egiteak ez du esan nahi produktua erreserbatu denik. Produktua denda fisikoan erreserbatu nahi bada, jarraitu ondorengo jarraibideei.

Erreserbak dendan

Baldintza hauen xedea webgunean argitaratutako produktuen erreserba zerbitzua erabili ahal izateko eta ondoren dendan erosteko baldintzak zehaztea da, eta erreserbaren baldintzak zehaztuko dituzte. Webgune honen bitartez eskaintzen diren produktuen erreserba Espainiako OYSHO dendentzako baino ez daude eskuragarri. Webgunean datozen prezioek BEZ barne dute. Ordaintzeko, Espainiako dagokion OYSHO dendan erabil daitezkeen baliabideak erabil daitezke.

Erabiltzailea OYSHOren Espainiako web orrian sartu beharko da eta interesatzen zaion produktua bilatu. Ondoren, "stock-a eta erreserba denda fisikoetan" aukera sakatu behar du. Automatikoki, leiho bat edo pop-up mezu bat irekiko da. Erabiltzaileak hor sartu behar du bere posta kodea edo hiria, gertuen geratzen zaion Espainiako OYSHOren denda fisikoan jantzi hori dagoen ala ez egiaztatzeko.

Jarraian, erabiltzaileak produktua jaso nahiko duen denda fisikoa aukeratu beharko du pantailan agertzen zaion zerrendan, eta jarraian "Erreserba egin" sakatu behar du. Erabiltzaileak pantailan agertuko zaion formularioa bete beharko du hurrengo datuekin: 'izena, telefonoa eta produktuaren neurria'. Behin hura beteta, erabiltzaileak e-posta eta SMS bat jasoko ditu erreserba izapidetu dela jakinaraziz, haren kokatzailearekin batera. E-posta honek ez du berresten produktua eskuragarri dagoenik. Produktuaren eskuragarritasuna eta erreserbaren eraginkortasuna ondoren berretsiko edo baztertuko da beste e-posta baten bitartez. Erreserba berresten bada, aurreko urratsetan aukeratutako Espainiako OYSHO denda fisikora hurbildu behar da, denda irekita dagoen ordutegian, erreserba berresten duen e-posta jaso denetik hogeita lau orduko epean. Epe horrek iraungitakoan, erreserba baliogabetuko da eta ez du efekturik izango. Erabiltzaileak, erreserbatutako jantzia erosteko dendan agertzen denean, denda fisikoan erakutsi beharko du erreserbatuaren kokatzailea.

Erabiltzaileak hautatutako denda produktua erreserbatzeak ez du eragingo erabiltzaileak online ordaintzea, ezta erostea ere, erabiltzailea produktua erreserbatuta egongo den epeak iraungi aurretik agertzeko konpromisoa duela baizik. Erabiltzaileak jakin behar du OYSHOren produktuaren edo produktuaren erreserbak stock-a geldiaraztea eragingo duela erabiltzaileari emandako epean.

Erabiltzaileak ezingo du erabili dendan erreserba egiteko funtzioa Beherapenak hasi direnetik hilabete bateko epean, zeinak OYSHOren Espainiako web orrian plazaratuko diren, dagokien unean. Hilabete hori igarota, sasoiko jantziak bakarrik erreserbatu ahal izango dira. Stock-ean kontsultatzeko eta denda fisikoan erreserba egiteko aukera desaktibatu ahal izango du OYSHOk.

OYSHOk zure erreserba kudeatzeko konpromisoa du, erreserba egiteko unean jakinarazitako epean, eta Espainiako OYSHO denda bakoitzaren ordutegi komertzialen arabera, zeinak hemen ikus [ditzakezun](#).

Azkenean erabiltzaileak Espainiako OYSHO denda fisikoan erreserbatutako produktua erosten badu, Berme komertziala aplikatuko zaio, eta baita establezimendu horretan aplikatuko zaion itzultze-politika ere, haren kutxa zonan jakinaraziko zaiona, salmenta presentziala delako, eta ez online salmenta.

9. PRODUKTUEN ESKURAGARRITASUNA

Produktuen eskari guztiak produktu horien eskuragarritasunaren menpe egongo dira. Alde horretatik, produktuen hornikuntzarekin lotutako zailtasunak egotekotan edo stock-ean produkturik ez egotekotan, baimenduta gaude produktu horiek ordezkari ditzaketan eta balio bereko edo gehiagoko kalitatezko beste produktu batzuen inguruko informazioa emateko, horiek eskatzeko aukera emanez. Ordezko produktu horien eskaria egin nahi ez baduzu, ordaindu duzun edozein zenbateko itzuliko dizugu.

10. ENTREGA

Eskeria formalizatu aurretik, zure beharretara gehien egokitzen den entrega-modalitatea hautatu beharko duzu. Beste zerbait adostu ezean, Bidalketaren Baieztapen bakoitzean zerrendatutako produktuek osatzen duten eskaria bidaliko dizugu, atzerapen desegokirik gabe eta, beranduenik ere, 30 egun naturaleko epean Eskeria baieztatzen denetik

Baliteke produktuen pertsonalizazioa dela eta, edo ustekabeko edo aparteko egoerak direla eta entrega egunak aldaketak jasatea.

Opari-txartel birtualari dagokionez, eskaria egiterako momentuan zuk aukeratutako datan bidaliko dugu.

Arrazoiren batengatik entrega-data bete ezin badugu, egoeraren berri emango dizugu eta bi aukera emango dizkizugu: erosketarekin jarraitzekoa, entrega-data berria adostuz, edo eskaria bertan behera ustekoa, ordaindutako prezioa bere osotasunean itzuliz. Kontutan har ezazu, edozein kasutan ere, larunbatetan eta igandetan ez dugula etxean entregarik egiten; opari-txartela birtualaren kasua salbuespena da, zuk aukeratutako datan entregatzen baitugu.

Baldintza hauei dagokienez, "entrega" egin dela ulertuko da edo eskaria "entregatuztat" joko da zuk, edo zuk hautatutako beste norbaitek, produktuen jabetza materiala hartzen duzunean. Hori frogatzeko, adostutako eskaria jaso dela baieztatuko duen sinadura eskatuko da.

Opari-txartel birtuala entregatuztat joko da Opari-txartelaren Erabilera Baldintzetan xedatutakoaren arabera; eta, edozein kasutan ere, zuk adierazitako datan eta helbide elektronikoan entregatuko dugu.

11. ENTREGATZEKO EZINTASUNA

Zure eskariaren entrega ezin badugu egin, hori uzteko toki segururen bat topatzen saiatuko gara. Toki segururen bat topatzen ez badugu, zure eskaria biltegira itzuliko da. Zure eskaria non dagoen eta zer egin behar duzun eskaria berriro bidali dezagun azaltzeko ohar bat utziko dizugu. Entregaren tokian adostutako orduan egongo ez bazara, mesedez, jar zaitez gurekin harremanetan entrega beste egun baterako adosteko.

Zure eskaria entregatzeko prest dagoenetik 30 egun pasa direnean, guri egotzi ezin zaizkigun arrazoiengatik eskaria ezin izan bada entregatu, kontratuari uko egin nahi diozula ulertuko dugu, eta ebatzitzat joko dugu. Kontratuaren ebazpenaren ondorioz, jasotako ordainketa guztiak itzuliko dizkizugu, baita entrega-gastuak ere (eskaintzen dugun bidalketa-modurik merkeena ez den beste bat aukeratzeagatik sortutako kostu gehigarriak salbu); inolako atzerapenik gabe, kontratua ebatzitzat jo dugunetik 14 eguneko gehienezko epean. Mesedez, kontutan har ezazu ebazpenaren ondorioz beharrezkoa gerta daitekeen garraioak kostu gehigarria suposa dezakeela; kostu hauek zuri egozteko baimenduta gaude.

Klausula hau ez da aplikagarria opari-txartel birtualaren kasuan. Izan ere, kasu honetan, entrega aurreko 9. klausulako opari-txartelaren Erabilera Baldintzetan xedatutakoaren arabera arautuko da.

12. ARRISQUAREN ETA JABETZAREN TRANSMISIOA

Produktuen arriskuak zure kontu egongo dira entregaren unetik aurrera. Produktuen jabetza jasoko duzu hauekin lotutako zenbateko guztien ordainketa osoa jasotzen dugunean, bidalketa-gastuak barne; edo entregaren momentuan (aurreko 9. klausulako definizioari jarraiki), hau geroago gertatzen bada.

13. PREZIOA ETA ORDAINKETA

Plataformetan agertzen diren prezioek BEZa barne hartzen dute (zerga hau aplikagarri denean); baina ez dituzte bidalketa-kostuak barne hartzen, horiek guztizko zenbatekoan gehituko dira, gure Erosketa Gidan - Bidalketan azaltzen denaren arabera.

Prezioak edozein momentutan alda daitezke, baina aldaketa posible hauek ez dute eraginik izango Eskari Baieztapena dagoeneko bidalita duten eskarietan.

Behin erosi nahi dituzun produktuak aukeratu dituzunean, horiek saskira barneratuko ziren, eta hurrengo pausoa eskaria bideratzea eta ordainketa egitea da. Horretarako, erosketa prozesuaren pausok jarraitu beharko dituzu, pauso bakoitzean eskatzen den informazioa betez. Halaber, erosketa prozesuan zehar eta ordainketa egin aurretik, zure eskariaren datuak aldatzeko aukera izango duzu. Erosketa Gidan erosketa prozesuaren deskribapen zehatza daukazu. Gainera, erregistratutako erabiltzailea bazara, egindako eskari guztien xehetasuna ikusi dezakezu Nire Kontua atalean.

Ordainketa-modu hauek erabili ditzakezu: Visa, Mastercard, American Express, Maestro eta Affinity Card txartelak, Sofort ordainketa-modua (transferentzia bidezko ordainketa) eta PayPal. Halaber, zure erosketaren prezio osoa edo zati bat Fashion Retail, S.A.k igorritako opari-txartel edo OYSHOko abonutxartel baten bidez ordaindu dezakezu. Gainera, zure eskariaren prezioa jasotzean ordaintzeko moduaren

bidez ordaindu dezakezu Espainiako OYSHO bilketarako dendetan onartzen den edozein ordainketa-modu erabiliz.

Honako hau jakinarazi nahi dizugu: Fashion Retail, S.A.k, egoitza Diputación etorbideko Inditex Eraikina, Arteixo (A Coruña) helbidean duenak; A Coruña-ko Merkataritza Erregistroan inskribatuta dagoena, 3425. Bol., 49. Folioan, C-47731 Orrian, A-70301981 Identifikazio Fiskaleko Zenbakidunak, Oysho España, S.A.ren izenean kobratuko duela; eta, kasua balitz, baita Plataformen bidez egindako ordainketekin lotutako diru-itzultzeak ere.

Espainiako OYSHO denda jakin batzuetan erabilgarri dagoen gailu elektronikoen baten bidez egin baduzu eskaria, denda horietan onartzen den edozein ordainketa-modu erabili ahalko duzu ordainketa egiteko, denda horietako batzuetan.

Baimendu gabeko sarbideen arriskua murrizteko, zure kreditu-txartelaren datuak kodetuko dira. "Ordainketa Baimendu" sakatzerakoan, kreditu-txartela zurea dela edo opari-txartelaren edo abonutxartelaren legezko jabea zu zarela baieztatzen duzu.

Kreditu-txartelak igortzen dituen entitateak txartel horiek egiaztatu eta baimendu ditzake. Entitateak ordainketa baimentzen ez badu, ez gara atzerapenaren edo entrega faltaren erantzule gu izango, eta ezin izango dugu zurekin kontraturik formalizatu.

14. GONBIDATU GISA EROSI

Gure webguneak gonbidatu gisa erosteko aukera eskaintzen du. Erosketa modalitate honetan, zure eskaria bideratu ahal izateko beharrezkoak diren datuak baino ez dizkizugu eskatuko. Behin erosketa prozesua amaituta, erabiltzaile gisa erregistratzeko edo erregistratu gabeko erabiltzaile gisa jarraitzeko aukera eskainiko dizugu.

15. EROSKETA AZKARRA

Erosketa azkarra funtzionaltasunaren bitartez (aurrerantzean, "Erosketa Azkarra"), Plataformetan erosketak modu errazagoan egin ahalko dituzu. Bidalketa, fakturazio eta ordainketa datuak ez dituzu erosketa bakoitzean sartu beharko. Erosketa Azkarra erabilgarri egongo da Erosketa Saskia atalean. Erosketa Azkarra erabiltzeko, zure txartelaren datuak gorde beharko dituzu. Plataformek onartzen dituzten edozein txartelekin ordainketa egiterakoan sar ditzakezu datuak, "nire txartelaren datuak gorde" aukera markatuz. Zure txartelaren datu hauek gordeko dira: txartelaren zenbakia; titularraren izena, idatzita agertzen den moduan; eta txartelaren iraungitze-data. Txartelaren datuak gordetzeko eta Erosketa Azkarra erabiltzeko, indarrean dagoen Pribatutasun-politikan jasotako Baldintzak eta datuen tratamendua onartu beharko dituzu. Erosketa Azkarraren erabilera onartzerakoan, tresna horren bitartez hasitako ordainketei dagozkien erosketak tresna horri lotutako txartelean kargatzea onartzen duzu.

Zure txartelen erabilera zure eta txartelaren igorlearen artean adostutako baldintzen arabera arautuko da. Erosketa Azkarrean nahi duzun beste txartelen datuak gorde ditzakezu; horretarako, txartel bakoitzarekin, gutxienez, ordainketa bat egin beharko duzu. Txartel bat baino gehiagoren datuak gorde nahi badituzu, berriki gorde den txartela "Txartel Gogokoena" gisa hartuko da. Beraz, Erosketa Azkarra

bidez egindako erosketak txartela horretan kargatuko dira lehenespenez. Hala eta guztiz ere, zure Txartel Gogokoena aldatu dezakezu webgune honetako "Nire Kontua" atalean. Erosketa Azkarra erabiltzeko, Erosketa Saskian agertzen zaizun "Erosketa Azkarra" botoia sakatu baino ez duzu behar. Berehala, zure erosketako bidalketa-, fakturazio- eta ordainketa-datuak dituen pantaila agertuko zaizu. Pantaila horretan agertzen den informazioa ezin da editatu; beraz, daturen bat zuzena ez bada, ez ezazu erosketa amaitu. Erosketak beste datu batzuekin egin nahi badituzu, mesedez, ez ezazu Erosketa Azkarra erabili. Erosketa Azkarrari lotutako zure Txartel Gogokoena aldatu dezakezu webgune honetako Nire Kontua atalean. Klausula honetan xedatutakoa ez da aplikagarria izango gonbidatu gisa egiten baduzu erosketa.

16. BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA ETA FAKTURAZIOA

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 68. artikuluan xedatutakoari jarraiki, produktuen entrega BEZa aplikagarri den Espainiako lurraldean egingo dela ulertuko da, baldin eta entregarako helbidea Espainiako lurraldean dagoen; Kanariak, Ceuta eta Melilla salbu. Aplikagarri den BEZ mota legez indarrean egongo da, momentu oro, produktu motaren arabera. Kanarietara, Ceutara eta Melillara egiten diren eskarien kasuan, bidalketek ez dute BEZik izango, 37/1992 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera; betiere lurralde horietako bakoitzak indarrean izan dezakeen araudiaren araberako zergen edo muga-zergen aplikazioan eragin gabe.

Faktura euskarri elektronikoan igortzeko baimena ematen diguzu espresuki. Hala ere, edozein momentutan, faktura paperean nahi duzula adierazi diezagukezu; kasu horretan, faktura euskarri horretan igorri eta bidaliko dugu. Behar duzunean, gure Bezeroen Arreta Zerbitzuarekin harremanetan jarritz eskatu ahal izango duzu, zure esku jarritako edozein bideren bitartez eta beti doan.

17. ITZULKETA-POLITIKA

17.1 Erosketari uko egiteko eskubidea edo Atzera egiteko eskubidea

Kontsumitzaile eta erabiltzaile gisa kontratatzen ari bazara, 14 egun naturaleko epean Kontratu honetan atzera egiteko eskubidea daukazu, arrazoitu beharrik gabe.

Atzera egiteko eskubidea iraungiko da zuk, edo zuk izendatutako beste norbaitek, garraiolaria ez dena, ondasunen jabetza materiala jaso zenuenetik 14 egunetara. Zure eskaria osatzen duten ondasunak banatuta entregatzen badira, zuk, edo zuk izendatutako beste batek, garraiolaria ez dena, eskariko azken ondasunaren jabetza materiala jaso zenuenetik 14 egunetara iraungiko da eskubidea.

Atzera egiteko eskubidea erabiltzeko, OYSHOn Kontratuan atzera egiteko erabakiaren berri eman beharko diguzu, zalantzarik gabeko adierazpen baten bidez (adibidez, posta edo posta elektroniko bidez bidalitako gutuna), bide hauek erabiliz: Tordera-Palafolls errepidea zg., 08490 Tordera, Bartzelona, helbidea; 900 456 004 telefono-zenbakia; contact_es@oysho.com helbide elektronikoa; edo gure harremanetarako galdetegia. Baldintza hauen eranskin gisa agertzen den atzera egiteko galdetegi eredu erabili dezakezu, baina hori erabiltzea ez da derrigorrezkoa. Atzera egiteko epea betetzeko, eskubide hori erabiliko duzula jakinarazteko komunikazioa dagokion epea bete aurretik bidaltzea besterik ez duzu behar.

Atzera egitearen ondorioak

Atzera egiten baduzu, jasotako ordainketa guztiak itzuliko dizkizugu, baita entrega-gastuak ere (eskaintzen dugun bidalketa-modurik merkeena ez den beste bat aukeratzeagatik sortutako kostu gehigarriak salbu); inolako atzerapenik gabe, Kontratu honetan atzera egiteko erabakiaren berri izan dugunetik, 14 eguneko gehienezko epean. Diru-itzulketa hori egiteko, hasierako transakzioan erabili zenuen ordainketa-modu bera erabiliko dugu, zuk kontrakoa eskatu ezean, eta diru-itzulketarako erabili behar dugun ordainketa-modua espresuki adierazi ezean. Ez da gasturik sortuko diru-itzulketaren ondorioz. Dena den, diru-itzulketa gorde dezakegu ondasunak jaso arte, edo horiek itzuli izanaren froga aurkezten duzun arte; horietatik lehenengo gertatzen den baldintza hartuko da kontuan. Itzultzera egiteko erabili ditzakezun bideak hauek dira: Produktuak zuzenean Espainiako edozein OYSHO dendan itzuli edo entregatu; Espainian horretarako gaitutako edozein entrega puntuan produktuak entregatu, eskariarekin batera bidaltzen dugun itzulera-etiketa erabiliz; edo produktuak helbide honetara bidaliz: Tordera-Palafolls Errepidea zg., 08490 Tordera, Bartzelona. Itzultzea atzerapenik gabe egin behar da; eta, edonola ere, Kontratuan atzera egiteko erabakiaren berri eman diguzunetik 14 egun naturaleko gehienezko epean. Epea betetzat joko da produktuen itzulera aipatutako epea bukatu baino lehen egiten baduzu.

Produktuak Espainiako OYSHO dendaren batean edo Espainian horretarako gaitutako entrega-punturen batean itzultzen badituzu salbu, produktuen itzulerako gastu zuzenak zuk ordaindu beharko dituzu. Azkeneko kasu honetan, gogora ezazu, produktuekin batera, Bidalketaren Baieztapenarekin jaso duzun tiket elektronikoaren inprimatutako kopia bat entregatu beharko duzula.

Ondasunen funtzionamendua, ezaugarriak eta natura ezartzeko beharrezkoa den beste manipulazio baten ondorioz sortu daitekeen balio-galeraren erantzule zu baino ez zara izango.

17.2 Atzera egiteko kontratuzko eskubidea

Aurreko 16.1 klausulan aipatutako erabiltzaile eta kontsumitzaileei dagokien legezko atzera egiteko eskubideaz gain, produktuen itzulera egiteko hilabeteko epea emango dizugu, Bidalketa Baieztapenetik hasita (hurrengo 16.3 klausulan aipatuko ditugunak salbu, horiek ez baitute atzera egiteko eskubiderik salbu). Opari-txartelaren itzulera Opari-txartelaren Erabilera Baldintzek arautzen dute.

Kontutan har ezazu hilabeteko epea data batetik bestera neurtuko dela; eta, beraz, lanegunak ez diren egunak ez direla kenduko. Iraungitzen den hilabetean ez badago zenbatzen hasi zen egunaren baliokiderik, epea hilabetearen azkeneko egunean amaituko da. Produktuak itzultzen badituzu atzera egiteko eskubidearen kontratuzko epean, baina behin legezko epea bukatu denean, produktu horiengatik ordaindu zenuen zenbatekoa baino ez dizugu itzuliko. Produktuen itzulerako gastu zuzenak zuk ordaindu beharko dituzu, produktuak Espainiako OYSHO dendaren batean edo Espainian horretarako gaitutako entrega-punturen batean itzultzen ez badituzu. Azkeneko kasu honetan, gogora ezazu, produktuekin batera, Bidalketaren Baieztapenarekin jaso duzun tiket elektronikoaren kopia bat entregatu beharko duzula.

Atzera egiteko eskubidea erabili ahalko duzu aurreko 16.1 klausulan xedatutakoaren arabera; baina atzera egiteko eskubidearen legezko epea bukatzerakoan, Kontratuan atzera egiteko duzun asmoaren berri ematen badiguzu, ondasunak hilabeteko epean itzuli beharko dizkiguzu, Bidalketa Baieztapenaren datatik zenbatzen hasita.

17.3 Xedapen orokorrak

Ez duzu Kontratuan atzera egiteko eskubiderik izango produktua hauetako bat denean:

- i. Pertsonalizatutako produktuak.
- ii. Musika CD/DVDak jatorrizko bilgarririk gabe.
- iii. Higiene arrazoiak direla eta zigilatutako produktuak, zigilua kendu bazaie entrega eta gero.

Bitxi Premium-etan ezingo da aldaketarik edo itzulerarik egin. Atera daitezken kopetan ezingo da aldaketarik edo itzulerarik egin. Kontratuan atzera egiteko duzun eskubidea bakarrik aplikatuko zaie jaso zenituen egoera berean dauden produktuei. Ez da inolako diru-itzulerarik egingo kasu hauetan: Produktua irekitzeaz gain, beste ezertarako erabili bada; produktuak entregatu ziren egoera berean ez badaude; edo produktuek kalteren bat izan badute. Hori dela eta, produktuak ondo zaindu behar dituzu zure jabetzan dauden bitartean. Mesedez, produktua itzultzerakoan, erabili edo sartu itzazu jatorrizko bilgailu guztiak, instrukzioak eta produktuarekin batera datozen beste agiri guztiak.

Produktuak Espainiako OYSHO dendaren batean edo Espainian horretarako gaitutako entrega-punturen batean itzuli ditzakezu, ondoren xedatzen denaren arabera:

- Itzulerak OYSHO dendan.

Itzuli nahi duzun salgaien atal berdina duen Espainiako edozein OYSHO dendan itzuli ahalko dituzu produktuak. Kasu horretan, denda horietako batera joan eta, produktuarekin batera, Bidalketaren Baieztapenarekin batera jaso zenuen tiket elektronikoa entregatu beharko duzu, Plataformetako zure kontuan dagoena. Tiket elektronikoa modu digitalean aurkeztu dezakezu zure gailu elektronikoaren pantailan erakutsiz, edo bestela, dendara inprimatuta eraman dezakezu.

- Itzulerak Espainian horretarako gaitutako entrega-puntuetan.

Produktuak Espainian horretarako gaitutako entrega-punturen batean itzuli ahalko dituzu. Puntu horien zerrenda webguneko "Nire Kontua" saileko "Eskariak eta Itzulerak" atalean edo Aplikazioko "Nire itzultzeak" atalean topatuko duzu. Horretarako, atal horretako "Entrega-puntua" metodoaren bitartez itzulera egitea eskatu behar duzu. Ondoren, posta elektronikoa bidez itzulera-etiketa bat bidaliko dizugu; hori paketeen itsatsi behar duzu eta paketea tokiko Correos bulegora eraman. Produktua jaso zenuen pakete berean utzi behar duzu eta webguneko "Nire Kontua" saileko "Eskariak eta Itzulerak" atalean, Aplikazioko "Nire itzultzeak" atalean edo posta elektronikoan dauden jarraibideak bete. Gonbidatu gisa erosi baduzu, Espainian horretarako gaituta dauden entrega-punturen batean itzuli ahalko dituzu produktuak. Horretarako, Bidalketaren Baieztapenarekin bidali dizugun esteka erabili beharko duzu. Beharrezko egiaztapenak egin ondoren, posta elektronikoa bat jasoko duzu; bertan topatuko duzun etiketa paketeen itsatsi beharko duzu eta paketea aipatutako edozein gaitutako puntuan itzuli.

Aukera horiek ez dakarte zuretzako kostu gehigarriak.

Produktuak erabilgarri dauden doako aukera baten bidez itzuli nahi ez badituzu, itzulera-gastuak zure kontura izango dira. Azkeneko kasu honetan, gogora ezazu, produktuekin batera, Bidalketaren Baieztapenarekin jaso duzun tiket elektronikoaren inprimatutako kopia bat entregatu beharko duzula.

Mesedez, gogoan izan, produktuak garraio-kostuak ordaindu gabe itzultzea erabakitzen baduzu, sor daitezkeen gastuak kobratzeko baimena dugula.

Produktua aztertu eta gero, ordaindutako diru-itzulerarako eskubidea duzun jakinaraziko dizugu. Garraio-gastu hauen diru-itzulera bakarrik egingo da atzera egiteko eskubidea legezko epearen barruan erabili denean eta eskaria osatzen duten produktu guztiak itzultzen diren kasuetan. Diruaren itzulera ahalik eta lasterren egingo da; eta, edonola ere, atzera egiteko asmoa jakinarazi zenigunetik, 14 eguneko epearen barruan egingo da. Dena den, diru-itzulketa gorde dezakegu ondasunak jaso arte, edo horiek itzuli izanaren froga aurkezten duzun arte; horietatik lehenengo gertatzen den baldintza hartuko da kontuan. Erosketa egiteko erabili zenuen ordainketa-metodo berean itzuliko da dirua, itzulerarako opari-tiketa aurkezten denean salbu. Azken kasu honetan, diruaren itzulera OYSHO ESPAÑA, S.A.k igorritako OYSHOren abonutiketaren edo txartelaren bidez egingo da.

Zu izango zara produktuak itzultzearen ondorioz sor daitezkeen kostu eta arriskuen erantzule, lehen azaldu bezala. Zalantzarik badaukazu, gurekin harremanetan jar zaitezke gure harremanetarako galdetegiaren bidez edo 900 456 004 telefono-zenbakira deituz.

Jasotzean ordaintzeko metodoaren bitartez egindako edo dendan bertan kutxan ordaindutako eskarien itzulerak Espainiako OYSHO dendetan egin beharko dira. Kasu honetan, zure eskaria entregatzeko eta dendan ordaintzeko prest dagoenetik 10 egun pasa direnean, guri egotzi ezin zaizkigun arrazoiengatik eskaria ez bada jaso, kontratuari uko egin nahi diozula ulertuko dugu, eta ebatzitzat joko dugu. Era berean, zenbait OYSHO dendetan erabilgarri dauden gailu elektronikoen bidez egin diren eta dendan bertan kutxan ordaindu diren eskarien itzulerak Espainiako OYSHO dendetan egin beharko dira. Kontratuan atzera egiten baduzu, jasotako ordainketa guztiak itzuliko dizkizugu, eta aipatutako diru-itzulera egingo dugu.

17.4 Itzulerak Kanarietan, Ceutan eta Melillan

Kanarietan, Ceutan edo Melillan entregatu den produkturen bat aldatu edo itzuli nahi baduzu, edozein OYSHO dendara zuzenean joanez egin dezakezu, klausula honetan xedatutakoaren arabera. Hori egin ezin baduzu, 900 456 004 telefono-zenbakian gurekin harremanetan jar zaitezke; gurekin, edo gure ordezkariaren batekin, adosteko hitzordu bat, mezulari bat produktua jaso dezan edo itzulera bere kostu propioan egiteko.

17.5 Produktu akastunak itzultzea

Entregaren momentuan, produktua Kontratuan xedatutakoarekin bat ez datorrela uste baduzu, gurekin harremanetan jarri beharko zara berehala, gure harremanetarako galdetegiaren bidez, eta produktuaren datuak helarazi beharko dizkizugu. Bestela, 900 456 004 telefono-zenbakira deitu dezakezu, eta bertan, jarraitu beharreko pausoak azalduko dizkizugu.

Produktua Espainiako gure edozein OYSHO dendatan, Espainian horretarako gaitutako entrega-punturen batean edo aurretik aipatutako helbidera bidaliz itzuli ahalko duzu.

Itzulitako produktua ondo aztertuko dugu, eta posta elektronikoko edo dei baten bidez, arrazoizko epe baten barruan, jakinaraziko dizugu diru-itzulera edo produktuaren ordezkapena egingo dugun (kasua balitz). Diruaren itzulera edo produktuaren ordezkapena ahalik eta lasterren egingo da; eta, edonola ere, ados ez

zauden produktuaren ordezkapena edo diru-itzulera baieztatzeko posta elektronikoa bidali genizunetik 14 eguneko gehienezko epean.

Tara edo akatsen bat izateagatik itzultzen diren produktuengatik ordaindutako zenbatekoak, horiek benetan akastunak direnean, osorik itzuliko dizkizugu. Produktua entregatzeko eta zuk guri produktua itzultzeko sortu diren gastuak itzuliko dizkizugu baita ere. Erosketa egiteko erabili zenuen ordainketa-metodo berean itzuliko da dirua, itzulerarako opari-tiketa aurkezten denean salbu. Azken kasu honetan, diruaren itzulera OYSHO ESPAÑA, S.A.k igorritako OYSHOren abonu-tiketaren edo txartelaren bidez egingo da. Nolanahi ere, indarrean dagoen legediak onartutako eskubideak salbu daude.

17.6 Atzera egiteko eskubidea eta eskarien itzulera atzerritik.

Plataformaren bidez eskari bat egin baduzu Espainia ez den Europar Batasuneko beste herrialde batetik, aurreko 16.1, 16.2, 16.3 eta 16.4 klausulak aplikagarriak izango dira honako muga honekin: Guk antolatutako mezulari/courier bidezko itzulera Espainiako jatorrizko entrega-helbidetik baino ezingo da egin.

Halaber, jakinarazten dizugu, inolako egoerarengatik ere (16.5 klausulan xedatutako kasuetan salbu; izan ere, 16.6 klausula hau ez baitzaio aplikatzen), ez gaudela behartuta produktua Espainiako jatorrizko entrega-helbidera ez den beste batera bidaltzerakoan sortu daitezkeen gastuak ordaintzera; ez eta Espainiako lurraldetik kanpo dagoen jomuga baterako itzulera-gastuak ordaintzera ere.

18. BERMEAK

Kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa kontratatzen baduzu, Plataformen bitartez merkaturatzen ditugun produktuen gaineko bermeak eskainiko dizkizugu. Produktu mota bakoitzarentzat ezarritako lege-baldintzak hartuko dira kontuan; beraz, produktua entregatzen denetik bi urtera adierazten den produktuarekiko adostasun ezagatik erantzungo dugu.

Egoera hauetan ulertzen da produktuak kontratuarekin bat datozela: (i) guk egindako deskribapenarekin bat datozenean eta Plataformetan aurkeztu ditugun ezaugarriak dituztenean, (ii) mota horretako produktuen ohiko erabilera egiteko egokiak direnean, eta (iii) mota bereko produktu batetik espero daitezkeen ohiko prestazioak eta kalitatea dutenean. Zentzu honetan, produkturen bat kontratuarekin bat ez badator, horren berri eman beharko diguzu, aurreko 16.5 atalean azaldutako prozedura erabiliz eta horretarako aurreikusitako edozein komunikaziorako bide erabilia.

Saltzen ditugun produktuek, batez ere eskuz egindakoek, askotan, horiek ekoizteko erabiltzen diren material naturalen ezaugarriak izan ditzakete. Ezaugarri horiek, hala nola zerroetan, testuran, korapiloetan eta kolorean egon daitezkeen desberdintasunak, ez dira tara edo akats gisa hartuko. Alderantziz, aldaketa hauek positiboak dira, eta ondorioz, estimatu beharko genituzke. Kalitate goreneko produktuak baino ez ditugu aukeratzen, baina ezaugarri naturalak ezinbestekoak dira, eta produktuaren itxuraren parte dira.

19. ERANTZUKIZUNA ETA ERANTZUKIZUNEZ GABETZEKO ARRAZOIA

Baldintza hauetan kontrakoa adierazten bada salbu, gure Plataformetan erositako edozein produkturekiko dugun erantzukizuna produktu horren salneurria mugatuta egongo da. Hala ere, eta legez kontrakoa xedatzen ez den bitartean, ez dugu erantzukizunik hartuko honako galera hauengatik, jatorria edozein delarik ere:

- diru-sarreraren edo salmenten galerak;
- negozioaren galera;
- lortu ez den irabazia edo kontratuen galera;
- aurreikusitako aurrezkien galera;
- datuen galera; eta
- kudeaketa denboraren edo bulego-ordutegiaren galera.

Plataforemen izaera irekia dela eta, eta informazio digitalaren biltegiatzean eta transmisioan erroreak gertatzeko dagoen posibilitatea dela eta, ez dugu bermatzen Plataformen bidez eskuratutako edo transmititutako informazioaren zehaztasuna; bertan kontrakoa esaten ez bada salbu.

20. JABETZA INDUSTRIALA ETA INTELEKTUALA

Aitortzen eta onartzen duzu Plataformen parte diren materialen edo edukien gaineko edozein copyright, marka erregistratu eta jabetza industrialeko eta intelektualeko beste eskubideak guri, edo horiek erabiltzeko lizentzia eman zigutenei, dagozkigula momentu oro. Material hori soilik erabili dezakezu guk, edo horiek erabiltzeko lizentzia eman zigutenek, espresuki baimentzen dizugun moduan. Hala ere, Plataformak behar den neurrian erabili ahalko duzu zure eskariari buruzko informazioa edo Harremanetarako datuak kopiatzeko.

21. BIRUSAK, PIRATERIA ETA BESTELAKO ERASO INFORMATIKOAK

Debekatuta dago Plataformen erabilera desegokia egitea, birusak, troiarrak, harrak, bomba logikoak edo teknologikoki kaltegarria den beste programaren edo materialen bat nahita sartuz. Ez zara saiaturko Plataformetara, orrialdea kokatuta dagoen zerbitzarira edo edozein zerbitzarira edo gure Plataformekin lotutako edozein zerbitzari, ordenagailu edo datu-baserako sarbide ez baimendua lortzen; konpromisoa hartzen duzu Plataformei eraso ez egiteko, zerbitzua ukatzeko eraso baten edo banatutako zerbitzua ukatzeko eraso baten bitartez. Klausula hau ez betetzeak aplikagarri den araudian tipifikatutako arau-hausteen komisioa suposatuko du. Arau horren edozein hausteren berri emango diegu autoritate eskudunei eta horiekin batera lan egingo dugu erasotzailearen nortasuna ezagutzeko. Halaber, klausula hau betetzen ez baduzu, berehala Plataformak erabiltzeko baimena izateari utziko diozu. Zerbitzua ukatzearen eraso, birus edo teknologikoki kaltegarria den beste programa edo material baten ondorioz gertatutako edozein kalteren edo galeraren erantzule ez gara izango; zeinak zure ordenagailua, ekipo informatikoa, datuak edo materialak kalte ditzakeen, Plataformak erabiltzearen ondorioz edo bertatik edukiak deskargatzearen ondorioz.

22. ESTEKAK GURE PLATAFORMETATIK

Gure Plataformetan hirugarrenen webgunetara eta materialetara estekarik badago, horiek informazio-xedeetarako baino ez dira eskainiko; eta guk ez dugu webgune horietako edukien edo materialen gaineko kontrolik izango. Beraz, ez dugu erantzukizunik onartuko horiek erabiltzearen ondorioz sor daitezkeen kalte edo galerengatik.

23. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOAK

Aplikagarri den araudiak dio bidaltzen dizkizugun informazio eta komunikazioen parte bat idatziz izan behar dutela. Plataformen erabileraren bidez, gurekiko komunikazio horien gehiengoa elektronikoa izatea onatzen duzu. Posta elektronikoa bidez jarriko gara zurekin harremanetan, edo informazioa emango dizugu, Plataformetan jakinarazpenak argitaratuz. Kontratu-efektutarako, komunikaziorako bide elektronikoa hau erabiltzearekin ados zaudela adierazten duzu; eta onartzen duzu modu elektronikoa bidaltzen dizkizugun kontratu, jakinarazpen, informazio eta bestelako komunikazio guztiak idatziz izan beharreko legeko eskakizunak betetzen dituztela. Honek ez du eragingo legez daukazun eskubideetan.

24. JAKINARAZPENAK

Bidaltzen dizkizugun jakinarazpenak, ahal izanez gero, gure harremanetarako galdetegiaren bidez bidaltzea eskatzen dizugu. Aurreko 22. klausulan xedatutakoari jarraiki eta kontrakoa hitzartzen ez bada, komunikazioak bidali diezazkizukegu helbide elektronikora edo eskari bat egiterakoan ematen diguzun posta helbidera. Jakinarazpenak jaso direla eta behar bezala egin direla ulertuko da gure Plataformetan argitaratzen diren unean bertan, posta elektronikoa bat bidali denetik 24 ordura edo edozein gutun frankeatzen den eguna baino hiru egun geroago. Jakinarazpena egin dela frogatzeko bideak hauek dira: Gutun baten kasuan, helbide zuzena zuela, zigilua ondo jarrita zuela eta Correos bulegoan edo buzoian entregatu zela frogatu behar da. Posta elektronikoa baten kasuan, ordea, hartzailleak emandako helbide elektronikora bidali zela frogatu behar da.

25. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK LAGATZEA

Kontratua loteslea da, bai zuretzat eta bai guretzat ere; eta baita gure ondorengoentzat, lagapen-hartzaileentzat edo kausadunentzat ere. Ezingo duzu kontratu bat edo horri dagokion eskubideren edo betebeharren bat transferitu, laga edo kargatu, edo beste edozein modutan transmititu, aurretik ez baduzu eskuratu gure onespina idatziz. Kontratu bat edo horri dagokion eskubideren edo betebeharren bat transmititu, laga edo kargatu, edo beste edozein modutan transferitu, ahal dugu; kontratua indarrean dagoen edozein momentutan. Edozein zalantza ekiditeko asmoz: Transmisioek, lagapenek, kargak edo beste transferentziek ez dute eraginik izango, kontsumitzaile gisa, legeak aitortzen dizkizun eskubideetan; halaber, ez dute baliogabetuko, murriztuko edo beste edozein modutan mugatuko guk emandako bermeak, bai berariazkoak zein isilekoak.

26. GURE KONTROLETIK KANPO DAUDEN GERTAERAK

Ez gara inola ere erantzule izango gain hartutako betebeharren bat ez betetzeagatik edo berandu betetzeagatik, hori gure zentzuzko kontrolpetik kanpo dauden gertaerengatik sortu bada ("Ezinbesteko Kasua"). Ezinbesteko Kasuek barnean hartzen dute gure zentzuzko kontrolpetik kanpo dagoen edozein ekintza, gertaera, jarduera falta, omisio edo istripu; Beste batzuen artean, hauek: 1. Grebak, ugazaben itxierak edo beste neurri aldarrikatzaile batzuk. 2. Kommozio zibila, matxinada, inbasioa, mehatxua edo eraso terrorista, gerra (aitortua edo ez aitortua) edo gerrarako mehatxua edo prestaketak. 3. Sutea,

leherketa, ekaitza, uholdeak, lurrikara, lur-jotzea, izurritea edo beste edozein hondamendi natural. 4. Trenak, ontziak, hegazkinak, motor bidezko garraioak edo beste garraiobide, bai publiko zein pribatu, erabiltzeko ezintasuna. 5. Telekomunikazio sistema publiko edo pribatuak erabiltzeko ezintasuna. 6. Edozein gobernu edo agintari publikoren ekintza, dekretu, legedi, araudi edo murrizketak. Ezinbesteko Kasuak dirauen bitartean betebeharrak bertan behera egongo direla ulertzen da; eta baita betebeharrak betetzeko epea Ezinbesteko Kasuaren iraupen bera izan arte luzatu dezakegula ere. Arrazoizkoak diren bide guztiak jarriko ditugu Ezinbesteko Kasua amai dadin edo, Ezinbesteko Kasua gorabehera, gure betebeharrak betetzeko soluzio bat bilatzeko.

27. UKO-EGITEA

Kontratu baten bidez edo Baldintza hauen bidez zuk hartutako betebeharren baten betetze zorrotza eskatzen ez badugu, edo kontratu horren ondorioz edo Baldintzen ondorioz egokitu dakigukeen eskubide edo ekintzaren bat gauzatzen ez badugu, ez du suposatuko eskubide edo ekintza horiekin lotutako mugarik edo uko egiterik, eta ez zaitu zi betebeharrak horiek betetzeaz salbuetsiko. Gure aldetik, eskubide edo ekintza jakin bati edozein uko egiteak suposatuko du kontratutik edo Baldintzetatik eratorritako beste eskubide edo ekintza batzuen uko egitea. Gure aldetik, Baldintza hauetako bati edo kontratu batetik eratorritako ekintza edo eskubide bati uko egiteak efektua izango du. Ez da horrela izango, ordea, espresuki zehazten bada uko egitea dela, gauzatzen bada eta zuri idatziz jakinarazten badizugu, aurreko atalean -Jakinarazpenak- zehaztutakoari jarraiki.

28. DEUSEZTASUN PARTZIALA

Baldintza hauetako bat edo kontratu baten xedapenen bat deuseza eta efekturik gabea dela adierazten bada agintari eskudunak ebatzitako epai irmo baten bidez, gainerako termino eta baldintzek indarrean jarraituko dute, eta deuseztasun adierazpen horrek ez die eragingo.

29. AKORDIO OSOA

Baldintza hauek eta bertan aipatzen den edozein agirik horiei dagokien objektuarekin lotutako zure eta gure arteko akordio osoa osatzen dute; eta zure eta gure artean, idatziz edo ahoz, adostutako beste edozein akordio, itun edo agintza ordezkatzen dute. Zuk eta guk aitortzen dugu kontratuaren gauzatzea baimendu dugula; beste alderdiak egindako inolako adierazpenez edo agintzaz fidatu gabe, edo kontratua egin aurretik bi alderdiek ezarritako negoziatioetan egindako adierazpenen edo idatziren batetik ondorioztatu daitekeen adierazpenez edo agintzaz fidatu gabe. Baldintza hauetan espresuki adierazten dena salbu. Ez zuk eta ez guk ere ez dugu izango ekintzarik, kontratu baten data baino lehen, beste alderdiak, ahoz edo idatziz, egindako gezurrezko adierazpen baten aurrean (adierazpena iruzurrez egin bada salbu); eta beste alderdiak izango duen ekintza bakarria kontratua ez betetzeagatik izango da, Baldintza hauetan xedatutakoari jarraiki.

30. BALDINTZA HAUEK ALDATZEKO DUGUN ESKUBIDEA

Termino eta Baldintza hauek aldatzeko gaitasuna erreserbatzen dugu. Egiten ditugun aldaketek ez dute atzeraeraginezko izaera izango.

Egindako aldaketekin ados ez bazaude, gure Plataformak ez erabiltzea gomendatzen dizugu.

31. APLIKATU BEHARREKO LEGERIA ETA JURISDIKZIOA

Gure Plataformen erabilera eta horien bidez egiten diren erosketak kontratuak Espainiako legediak arautuko ditu. Sortzen den edo Plataformekin edota kontratuekin zerikusia duen edozein eztabaida Espainiako epai eta auzitegien jurisdikzio ez esklusiboaren pean egongo da. Kontsumitzaile gisa kontratatzen baduzu, klausula honetan zehazten den ezerk ez du eragingo indarrean dagoen legediak aitortzen dizkizun eskubideetan.

32. OHARRAK, IRADOKIZUNAK, KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK

Zure oharrak eta iradokizunak atseginez jasoko ditugu. Ohar eta iradokizun horiek, bai eta beste edozein galdera, kexa edo erreklamazio, gure harremanetarako galdetegiaren bidez, Baldintza hauetako 2. klausulan zehaztutako telefono edo posta helbidearen bidez, edo posta elektronikoen bidez bidaltzeko eskatzen dizugu. Gainera, erreklamazioetarako orri ofizialak ditugu, kontsumitzaileek eta erabiltzaileek erabili ditzaketenak. 900 456 000 telefono-zenbakira deituz edo gure harremanetarako galdetegiaren bidez eskatu ditzakezu.

Gure bezeroarentzako arreta zerbitzura heltzen diren kexak eta erreklamazioei ahalik eta lasterren erantzungo diegu; eta, edonola ere, hilabeteko gehieneko epean. Halaber, identifikazio-gako batez identifikatuko dira; eta gako hori jakinaraziko dizugu, egindako kexa edo erreklamazioen jarraipena egin dezazun. Kontsumitzaile gisa, zure eskubideak hautsi direla uste baduzu, zure kexak contact_es@oysho.com helbide elektronikora bidali diezazkiguzu; eztabaidak auzibidetik kanpo ebazteko irtenbideren bat eskatzeko helburuarekin.

Zentzu horretan, zure eta gure arteko erosketak gure Plataformen bitartez online egin bada, EBren 524/2013 zenbakidun araudiaren arabera, jakinarazten dizugu gurekin eztabaidak auzibidetik kanpo ebazteko irtenbidea eskatzeko eskubidea duzula, kontsumo irisgarriaren arloan, <http://ec.europa.eu/consumers/odr/> Interneteko helbidearen bidez.

Azken aldaketa: 02-06-2021

I. ERANSKINA
Atzera egiteko galdetegiaren eredu

(Galdetegi hau bakarrik bete eta bidali behar duzu kontratuan atzera egin nahi baduzu)

Norentzat: OYSHO España S.A., OYSHO izen komertzialaren pean jarduten; Tordera-Palafolls errepidea zg., 08490 Tordera, Bartzelona, FAX: 937667672 contact_es@oysho.com

Honen bidez, produktu honen kontratuan atzera egiten dudala adierazten dut:

Eskaria noiz jaso den (*):

Kontsumitzaileen izena:

Kontsumitzaileen helbidea:

Kontsumitzailearen sinadura (soilik galdetegi paperean aurkezten bada)

Data:

(*) Zirriboratu egokia ez dena

"OYSHO" APLIKAZIOKO FUNTZIONALITASUNEN ERABILERA ZEHAZTAPENAK ETA BALDINTZAK

Zehaztapen eta baldintza hauek (aurrerantzean, "Baldintzak"), www.oysho.com helbideko Erabilera eta Erosketa Baldintzen berariazko izaera gehigarria dutenek, OYSHO markaren Aplikazioko funtzionaltasunen eta zerbitzuen sarbidea eta erabilera arautzen dute (jarraian zehaztuko den moduan).

Aplikazioko prestazioek honakoa barne hartzen dute: (i) Aplikazioaren bitartez produktuak eskuratzeko aukera, Online Dendan egindako erosketa gisa hartuko da eta, beraz, www.oysho.com-eko Erabilera eta Erosketa Baldintzen pean egongo da; (ii) OYSHOren denda fisikoetan egiten dituzun erosketen ordainketak kudeatzeko aukera (aurrerantzean, eta dagokion erreferentziaren arabera, "Denda Fisikoa" edo "Denda Fisikoak"); (iii) OYSHOren online dendetan egindako erosketen tiketak kudeatzeko aukera (aurrerantzean, "Online Denda"), biak Espainian jarduten ditu OYSHO ESPAÑA, S.A. sozietateak (I.F.Z. A15026347), egoitza Diputación Hiribidea, Inditex eraikina, Arteixo, 15143 Coruña helbidean duena; (iv) eta tiket elektronikoa edo ordainagiri elektronikoa jasotzeko aukera, OYSHOren Denda Fisikoetan helburu horretarako QR kode bakarra erakutsiz.

1. ZERBITZUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

1.1. Aplikazioaren bitartez produktuak eskuratzea www.oysho.com helbidean.

Aplikazioak bezeroei produktuak eskuratzeko ahalbidetzen die www.oysho.com helbidean, beraz, Online Dendako erosketaren izaera dauka eta www.oysho.com-eko Erabilera eta Erosketa Baldintzen pean egongo da, erosketaren unean onartu beharko dituenak.

1.2. Wallet funtzionaltasuna

Wallet funtzionaltasunaren bidez, honakoa egin ahal izango da:

- i. Denda Fisikoetan egiten dituzun erosketen **tiket elektronikoa ikusi**, ordainketa Wallet bidez hasi baduzu edo hurrengo (iv) eta (v) ataletan adierazten denaren arabera eskatu edo sortu badituzu. Halaber, Online Dendaren tiket elektronikoa ikusi ahalko dituzu;
- ii. **Ordaintzeko txartelak eta opari-txartelak kudeatu**: Denda Fisikoetan Wallet erabiliz hasten diren ordainketetan erabiliko diren txartelak gehitu ahalko dituzu. Online salmentaren erosketa azkarra aukeraren bidez gordetako txartelak badaude, hauek modu automatikoan eskuragarri egongo dira Wallet bidez ordaintzeko txartela moduan gaitzeko aukera emanez.

Txartel berri baten datuak sartzekoan, gorde nahi dituzun txartelen eta opari-txartelen datuen baliozkotasuna egiaztatzeko baimena ematen diguzu; halaber, mikro-ordainketa segurtasun sistemaren bidez zure txartelean zenbateko bat kargatzeko aukera baimentzen duzu.

Mikro-ordainketa horren zenbatekoa, hori egin zenetik, hilabeteko gehienezko epean itzuliko da. Txartelak kudeatzeaz gain, App-a egikaritzen den gailuak gaitutako segurtasun mekanismoen arabera, Wallet-ek horietara lotutako gako bat sortzea eska diezazuke.

- iii. **Wallet bidez ordainkeak hastea:** Horretarako gaitutako Denda Fisikoetan Wallet bidezko ordainketa kudeatzeko, dagokion dendako langileek emandako azalpenak jarraitu beharko dituzu.

Edozein kasutan ere, kontutan har ezazu Wallet bidez ordainketa hasteko, App-ak sortutako QR kodea aurkeztu beharko duzula, Denda Fisikoaren langileek balioztatu dezaten eta kutxa-gunean dauden baliabide teknikoek irakurri dezaten.:

App-a egikaritzen den gailuak gaitutako segurtasun mekanismoen arabera, Wallet-ek Wallet Pasahitza sartzea eska dakizuke, ordainketa kudeatzeko beharrezkoa den QR kodea sortu ahal izateko.

Wallet bidez hasitako ordainketetan, tiket elektronikoa bat luzatuko zaizula eta paperezko tiketik ez duzula jasoko ulertzen eta onartzen duzu. Wallet bidez Denda Fisiko batean ordainketa hasten duzunean, hau kargatuko da ordainketa hasterakoan Zerbitzuan aukeratzen duzun txartelan.

Produktuen entrega egingo da horien erosketaren ordainketaren hasiera baimentzen duzun momentuan, dendako langileei QR kodea aurkeztuz eta Denda Fisikoaren kutxa-guneetan horretarako gaitutako baliabideetan kode hori irakurtzearen bidez.

Erosketa baten ordainketa Wallet bidez hasten duzunean, ordainketa hori dagokion Denda Fisikoaren erosketa baldintzen arabera arautuko da. Horregatik, zure eta Denda Fisikoaren arteko kontratuari dagokion edozein erreklamazio OYSHO ESPAÑA, S.A.ra helarazi beharko duzu; kasu jakinean aplikagarria bada, adibidez, Espainiatik kanpo kokatutako denda fisiko batean egin izanagatik, kasuan kasu, dagokion sozietateari helarazi. Wallet doako zerbitzua da.

Hala eta guztiz ere, txartelaren igorleak komisioak kobra ditzake horren bidez egindako ordainketengatik. Informazio gehiagorako, kontsulta itzazu igorlearekin duzun kontratuaren terminoak. Halaber, zure telekomunikazioen zerbitzuen operadoreak Wallet erabiltzeko erabiltzen duzun telekomunikazio-sarea erabiltzeagatik kobratu dezake.

Informazio gehiagorako, kontsulta itzazu sarearen hornitzailearekin duzun kontratuaren terminoak. Wallet bakarrik erabili ahalko da ordainketak hasteko zehaztutako dendetan. Wallet beste xede batzuetarako erabiltzea guztiz debekatuta dago.

Beraz, zu erabiltzaile gisa ezabatzeko eskubidea daukagu eta, xede horretarako, zure kontua baliogabetu dezakegu eta iruzurrezko edo behar ez bezalako erabilera egiten duen erabiltzaileari, edo Wallet Baldintza hauetan edo Wallet-eri, App-ari edo Zerbitzuari aplikatu dakizkiokeen beste lege-testuetan zehazten diren arau eta prozedurak betetzen ez dituenari, dagozkion erantzukizunak eskatu.

- iv. **Tiketak "eskaneatzea":** paperean dagoen tiket baten bidez, tiketean inprimatuta dagoen QR kodea eskaneatuz tiket horren kopia digitala sor daiteke. Momentu horretatik aurrera, Denda Fisikoetan itzulerak egin ditzakezu tiket hori erabiliz; uneoro aplikagarri diren

termino eta baldintzetan, OYSHOren merkataritza politikaren arabera; eta, edonola ere, indarrean dagoen legediari jarraiki.

- v. **Tiket elektronikoa jasotzea:** Denda Fisikoetan erosketa bat ordaintzen baduzu, tiketa euskarri elektronikoa jasotzea eska dezakezu. Horretarako, Aplikazioan helburu horretarako erakutsiko den QR kodea erakutsi beharko duzu, eta tiketa automatikoki Aplikaziora bidaliko dizugu.

Momentu horretatik aurrera, Denda Fisikoetan aldaketak edo itzulerak egin ditzakezu tiket hori erabiliz; uneoro aplikagarri diren termino eta baldintzetan, OYSHOren merkataritza politikaren arabera; eta, edonola ere, indarrean dagoen legediari jarraiki.

Kasu honetan, ez dizugu tiketa paperezko euskarrian emango. **Hori dela eta, funtsezkoa da ulertzea QR hau erabiliz gero, berariaz tiket edo ordainagiri digitala igortzea eskatzen duzula, eta hori paperean jasotzeari uko egiten diozula. Edonola ere, behar duzunean, tiketa paperean jasotzea eskatu ahal izango duzu, gure Bezeroen Arreta Zerbitzuarekin harremanetan jarritz, OYSHOren web orrian argitaratutako komunikatzeko edozein bideren bitartez.**

Edozein kasutan ere, Wallet-eko edozein funtzionaltasunerako lehentasunez aplikagarria izango da tiket elektronikoei buruzko araudi erregulatuak edo aplikagarria den beste edozein, eta Baldintza hauek horien menpe egongo dira.

Erabiltzaile gisa baja eman nahi izanez gero, baja hori tramitatzeko, App-ean gordetako tiket guztiak horretarako ematen diguzun posta elektronikora bidaltzeko eskatu ahal izango diguzu.

1.3. Denda Fisikoetan egindako erosketen tiket elektronikoa jasotzeko berariazko funtzionaltasuna

Erregistratutako erabiltzaile bat bazara eta, beraz, Aplikazioa instalatuta baduzu, baina ordainketa-txartelak erregistratu nahi ez baduzu (Wallet funtzionaltasunaren berezkoa), Aplikazioan automatikoki QR kode bat agertuko zaizu, tiket elektronikoa eta ordainagiri elektronikoa Aplikazioan jaso ahal izateko.

QR hau erabiliz, berariaz tiket edo ordainagiri digitala igortzea eskatzen duzu eta paperean jasotzeari uko egiten diozu. Edonola ere, behar duzunean, tiketa paperean jasotzea eskatu ahal izango duzu, gure Bezeroen Arreta Zerbitzuarekin harremanetan jarritz, OYSHOren web orrian argitaratutako komunikatzeko edozein bideren bitartez.

2. APLIKAZIOAK ESKAINITAKO ZERBITZUEN ERABILGARRITASUNA

Aplikagarria den legedia errespetatuz, guretzat gordetzen dugu OYSHOren Aplikazioko funtzionaltasunen bat edo guztiak aldatzeko, bertan behera uzteko edo ezabatzeko eskubidea; edozein momentutan, zure diskrezioz eta alde aurretik jakinarazi gabe, bai orokorrean zein erabiltzaile bati edo batzuei zehazki. Halaber, Zerbitzuaren erabilgarritasun osoa edo partziala aldatzeko, bertan behera uzteko edo ezabatzeko eskubidea daukagu.

3. ERANTZUKIZUNA

Erantzukizun eskklusioa legez mugatzen den kasuetan salbu, ez gara izango OYSHOren Aplikazioa bere funtzionaltasun ezberdinetan erabiltzeagatik sor dakizkizukeen kalteen erantzule.

OYSHOren Aplikazioa sortu zen xedeetarako baino ez erabiltzeko konpromisoa hartzen duzu; eta, beraz, iruzurrezko edo behar ez bezalako erabilerarik ez egiteko konpromisoa ere hartzen duzu. Aplikazioa behar ez bezala erabiltzeagatik sor daitezkeen kalteen erantzule izango zara Sozietatearen edo edozein hirugarrenen aurrean.

Erantzule izango zara balizko kasu hauetan:

a) guk jakin gabe, zuk baimendutako hirugarren batek zure ekipoa edo Aplikazioarekin lotutako terminalak, SIM txartelak, helbide elektronikoak edota edozein Pasahitz erabiltzen dituzenean.

b) zure hardwarearen, softwarearen, gailuen edo terminalen funtzionamendu akastun baten ondorioz edo Aplikazioa exekutatzen den gailuan beharrezko segurtasun-mekanismoak ez jartzearen ondorioz, Aplikazioaren erabileran akatsak edo erroreak sortzen direnean.

4. JABETZA INTELEKTUALAREN ETA INDUSTRIALAREN ESKUBIDEAK ETA APLIKAZIOAREN BESTE ESKUBIDE BATZUK

Aplikazioaren edo Wallearen parte diren edo barruan dauden elementu guztiak Sozietatearen edo bere erabilera baimendu duten hirugarrenenak dira edo horien kontrolpean daude. Horrek guztiak, aurrerantzeak, "Jabetza" izena izango du.

Erabiltzaileak hauek ez kentzeko, ezabatzeko, moldatzeko, maneiatzeko eta inola ere aldatzeko konpromisoa hartzen du:

- Eskubideen legezko titularrek edo Sozietateak jabetza intelektualaren edo industrialaren arloan jabetzei jartzen dizkieten oharrak, legendak, adierazleak edo sinboloak (adibidez, copyright, ©, ®, ™, etab.).

- Jabetzak izan ditzakeen babeserako edo identifikaziorako gailu teknikoak (adibidez, ur-marka, hatz-aztarna, etab.). Erabiltzaileak onartzen du, Baldintza hauen arabera, Sozietateak ez diola erabiltzaileari inolako eskubiderik ematen bere Jabetzaren gainean, edo hirugarren alderdien edozein jabetzaren gainean.

Sozietateak erabiltzaileari sartzeko eta erabiltzeko baimena bakarrik ematen dio, Baldintza hauetan zehaztutako terminoekin bat etorriz.

Erabiltzaileek ez dute baimenik kopiatzeko, banatzeko (Internet eta posta elektronikoa barne), transmititzeko, komunikatzeko, aldatzeko, moldatzeko, transformatzeko, lagatzeko, edo Jabetzaren erabilera komertziala dakarten jarduerak egiteko; bai partzialki edo osotasunean, ez badago ustiapen eskubideen legezko titularraren berriazko adostasunik, idatziz.

Jabetzarako sarrera eta honen erabilera xede pertsonaletarako egingo da beti; inoiz ez merkataritza xedeetarako.

Sozietateak berari dagozkion Jabetzaren gaineko eskubideak gordetzen ditu; batzuk aipatzearren eta mugarik gabe: dituen jabetza intelektualaren eta industrialaren gaineko eskubide guztiak.

Sozietateak ez dio erabiltzaileari emango kalusula honetan espresuki zehazten denaren ezberdina den bere Jabetzaren gaineko lizentziarik edo baimenik. Sozietateak, edozein momentutan eta edozein arrazoiengatik, Baldintza hauen ahalmenen bidez emandako lizentziak ebazteko edo aldatzeko eskubidea gordetzen du.

Horri kalterik egin gabe, Sozietateak lege ekintzak has ditzake erabiltzailearen erabileraren aurka, honako kaksu hauetan:

- hemen zehazten diren zehaztapen eta baldintzekin bat ez datorrenean;
- Sozietatearen edo legezko titularra den beste hirugarren baten jabetza intelektualaren eta industrialaren edo baliokide diren eskubideak hausten edo urratzen ditunean.

Azken aldaketa: 2020/10/13